

# ADVANCED CICLO PROIEKTUA ABIARAZTEA SEKTORE ANITZETAKO ETE INDUSTRIALAK ZIRKULARIZATZEKO ETA DESKARBONIZATZEKO

*Posted on 18/09/2024 by Naider*

**Category:** [Albistea](#)

**Tags:** [CICLO Metodologia](#), [Descarbonización de la industria](#), [Economía zirkularra](#)

Atzo, irailak 17, NAIDER [IZAR Cutting Tools](#) enpresak Amorebieta-Etxanon dituen instalazioetara joan zen [ASLE](#) enpresa-elkarteari ADVANCED CICLO proiektua abiarazten laguntzeko. [CICLO proiektuaren](#) progresioa eta optimizazioa da proiektua. Aurrekoan ere ASLEekin lankide izan ginen, sektore anitzeko ETE industrialetan zirkulartasuna eta deskarbonizazioa bultzatzeko.

CICLO Proiektua egitean eskuratutako ezagutzei esker, NAIDERen metodologia propioarekin, sektore anitzeko ETE industrialak zirkularizatzeko eta deskarbonizatzeko tresna berriak garatu dira, oraingoan ADVANCED CICLO Proiektuan aplikatuko direnak (Kontzeptualizazioa, Garapena, Estrategien Baliozkotzea eta Inplementazioa, Tresna Teknologikoak, Ziurtagiriak eta Proiektu Pilotuak CICLO metodologiaren arabera). Oraingo honetan, NAIDERek bost ETEekin lan egingo du, banaka zein taldean, printzipio zirkularrak sartzeko erakundearen muinean.

Abiarazte-bileran IHOBek parte hartu zuen, bai CICLO proiektua eta bigarren fase honen babesle bezala ETE Zirkularra Programaren bidez, baita hautatutako bost ETEak ere: [HEROSLAM](#), [NEW FEPA](#), [TIPEBERRI](#), [Tornillería DEBA](#) eta IZAR bera.

Mila esker IZARi zuen instalazioetan hartzeagatik!

